

SESTAOKO UDALA

ERIZAINZAN DIPLOMATUAK

LEHENENGO ARIKETA BIGARREN ZATIA

2009-09-04

1 NORK BETE BEHAR DITU ESPAINIAKO ERIZAINTZA-KODEAREN XEDAPENAK?

- 1a) Espainian lanean dabilzan erizain guztiek.
- 1b) Espainiako nazionalitatea eduki eta Europar Batasunean lanean ari diren erizaintzako profesionalak soilik.
- 1c) Lanean ari diren erizaintzako profesional guztiek, betiere, kolegiatuta baldin badaude.
- 1d) Espainian lan egiten duten erizaintzako profesional espainiar nahiz atzerritarrek, kolegiatuta badaude; kanpoan utzita irakaskuntzan, kudeaketan edo ikerketan aritzen direnak.

2 ZEIN DA “ZAINTZAREN ETIKA” DERITZON TEORIAREN ARDATZ NAGUSIA?

- 2a) Gaixo bakoitzaren aspektu bereiziei arreta ematea, bere bizi-ibilbidea kontuan hartuz.
- 2b) Printzipio moral bakarrak aplikatzea.
- 2c) Komunitarismoaren printzipioak aplikatzea.
- 2d) Dilema etiko baten aurrean erizaintzako profesionalak jarrera neutrala izan behar duela.

3 JARRAIPENEZKO ZAHARTZEA DELAKO TEORIAK ZER DIO PERTSONEI BURUZ?

- 3a) Bakoitzaren izaeraren parte bihurtzen diren ohitura, konpromiso eta nahiera batzuk hartzen ditugula bakoitzak, eta zahartzean ere horien arabera izateko joera daukagula.
- 3b) Jardun eta rol pisuzkoak alde batera uzten ditugun heinean zahartzen garela.
- 3c) Gaztetatik lan berdina egiten jarraituz gero, zahartzearen ondorioak ez direla hain nabarmenak izango.
- 3d) Ohitura berdinei eutsiz gero beti, estresari hobe egiten zaiola aurre.

4 NAGUSIAK MESFIDATI IZATEN DIRA ASKOTAN, BAINA

- 4a) Okerrera egin dezakete bere inguruan elementu berriak sartuz gero.
- 4b) Normala da, adinean aurrera egindako guztiak dira mesfidati.
- 4c) Irrazionala da, eta hori ikusaraziz gero alda daiteke mesfidantza, eztabaidan jardun ondoren bada ere.
- 4d) Soilik dementzia badute.

5 GERONTOLOGIAKO ERIZAINEK BADUTE APARTEKO ZEREGIN FUNTSEZKO BAT:

- 5a) Tratamendu medikoaren ondorioz beharrezko diren zaintzak ematea.
- 5b) Teknika eta prozedura konplexuak egitea.
- 5c) Medikazioaren jarraipena egin eta zaintza konplexuak ematea.
- 5d) Gaixoak independente izaten jarraitzeko eta beren mугen arabera moldatzen jakiteko beharrezko zaintza integralak planifikatu eta koordinatzea.

6 ESPAINIAKO ERIZAINTZAREN KODE DEONTOLOGIKOAREN ARABERA, ERIZAIN BATEK IKUSTEN BADU BESTE ERIZAIN BATEK GAIKOAREN BAIMENA LORTZEKO INDAR FISIKOA EDO MORALA ERABILTZEN DITUELA, ZER EGIN BEHAR DU?

- 6a) Gaixoaren familiari berri eman, gaixoaren interesa babes dezaten.
- 6b) Osasun-arloko agintariei eta dagokion elkargo profesionalari jakinarazi ahalik eta azkarren.
- 6c) Sekretu profesionalari eutsi.
- 6d) Huts hori egin duen profesionalari kargu hartu, lehenengo aldia badu, baina esanez berriz gertatzen bada nagusiei jakinaraziko diela.

7 GERONTOLOGIAREN ARLOAN, ZER ESAN NAHI DUTE AGURETZE EDO ATSOTZE ESAPIDEEK? (GAZTELANIAZKO ANCIANISMO, EDADISMO EDO VIEJISMO ESAPIDEEK?)

- 7a) Zahartze-prozesu azkarra, estres fisikoak edo psikologikoak eragindakoa.
- 7b) Edadetuak estereotipatzea eta sistematikoki baztertzea.
- 7c) Zahartzearen aurrean adineko batzuek hartzen duten jarrera txarra.
- 7d) Edadetuen aldeko gizarte-mugimendu bat.

8 ZER DA BIOETIKA?

- 8a) Etika eta lege-arauak.
- 8b) Bizitzaren zientzietara aplikatutako etika.
- 8c) Osasuneko profesionalentzako moral mota bat.
- 8d) Osasun-arloan jarduteko lan-metodo bat.

9 HENDERSON EREDUA BIDE EGOKIA DA EDADETUEN AZTERKETA EGITEKO ETA ZAINTZA EMATEKO, IZAN ERE,

- 9a) Biztanleriako talde horretara jartzen du orientazioa erabat.
- 9b) Zahartze-prozesuan eragina daukaten faktore guztiak argi eta garbi azaltzen ditu.
- 9c) Hauxe da edadetuen premietara egokitutako erizaintzako eredu bakarra.
- 9d) Zaintzaren helburua edadetuek independentzia handiagoa izan dezatela du edo, hiltzear badaude, heriotza duina izan dezaten laguntzea.

10 MEDIKAMENTU HAUETAKO BATEK SEDAZIOAREN KONTRAKO ERAGINA IZAN DEZAKE HELDU ADINEKOETAN. ZEINEK?

- 10a) Salizilatoek.
- 10b) Antihistaminikoek.
- 10c) Erreserpinak.
- 10d) Diuretikoek.

11 BALORAZIO GERIATRIKOA EGITEKO FOLSTEIN-EN “MINI-MENTAL STATE EXAMINATION” DELAKOAK ZER NEURTZEN DU?

- 11a) Soilik edadetuaren arazo psikiatrikoa.
- 11b) Gaixoak zer motatako dementzia daukan.
- 11c) Funtzionamendu kognitiboa besterik ez.
- 11d) Funtzionamendu fisikoa eta kognitiboa.

12 “KOMUNIKAZIO FUNTZIONALA” KONTZEPTUAK KOMUNIKAZIO ZEHATZ BAT ADIERAZTEN DU. ZEIN DA, BESTEAK BESTE, KOMUNIKAZIO MOTA HORREN BEREIZGARRI?

- 12a) Motza dela, esaldi laburrekoa.
- 12b) Espezializatua dela, terminologia zientifikoa darabilena.
- 12c) Azalpeneko elementu asko dituela.
- 12d) Unidirekzionala, denborarik ez galtzeko.

13 ONDORENGO AUKERATATIK BAT EZ DA ZAINKETA ARINGARRIEN HELBURU:

- 13a) Bizitza luzatzea.
- 13b) Mina arintzea.
- 13c) Bizimodu aktiboa izaten laguntzea.
- 13d) Familiari laguntzea.

14 NON AGERTZEN DIRA ARTERIEN ESKASIA KRONIKOAREN ERAGINEZ SORTUTAKO ESTASI ULTZERAK?

- 14a) Txorkatilen edo bernaren alboetan.
- 14b) Ukondoaren barrualdean.
- 14c) Belaunaren alboetan.
- 14d) Koxisaren inguruan.

15 EDADETU BATEK HIPERTIROIDISMOA DAUKALA SUSMATZEKO ARRAZOAIA IZANGO DUGU BALDIN ETA,

- 15a) Gizentasuna gehi anorexia baditu.
- 15b) Dardara badu.
- 15c) Hotzari intolerantzia badio.
- 15d) Lokuma badu.

16 TXIZAREN INFEKZIOA DUEN GAIKO BATI ZER KOMENI ZAIO?

- 16a) Likido gehiago hartzea, beste kontraindikaziorik ez badu.
- 16b) Likido gutxi hartzea, inkontinentzia saihesteko.
- 16c) Maskuria erabat hustu gabe egitea txiza.
- 16d) Likido epelak edatea, inoiz ez hotzak.

17 EDADETUEI INKONTINENTZIA BALORATZERAKOAN, ZER DA BEREZIKI GARRANTZITSUA?

- 17a) Basokada bat ur edaten duenetik txiza egin arte pasatzen duen denbora.
- 17b) Gaixoak berak arazoa nola deskribatzen duen.
- 17c) Bere zaintzaileari eragiten dizkion arazoak identifikatzea.
- 17d) Jakitea nahita egiten ote duen, kasu gehiago egiteko.

18 EDADETUEN LARRIALDIETAKO ZAINTZAREN BEREIZGARRIEI BURUZ:

- 18a) Larrialdietako zerbitzua gutxien erabiltzen duen adin-taldea da edadetuena.
- 18b) Sarritan, heriotza arriskurik gabeko koadro kliniko arin bat baino gehiago daukatela agertzen dira larrialdietara.
- 18c) Edadetuak heriotzara eramango dituen krisia bezala bizi dute larrialdia.
- 18d) Aukera zuzenak b eta c dira.

19 DEMENTZIARI BURUZKO ESALDI HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 19a) Dementia diagnostikatzeko, historia osoa aztertzea da gakoa.
- 19b) Dementia dela-eta baloratzen ari diren gaixoen kasuan, errebisio farmakologikoa ez da beharrezkoa.
- 19c) Dementia diagnostikatzeko kontuan hartzen diren irizpideen artean, ez da sartzen memoria kaskartzea.
- 19d) Buruaren egoera aztertzean, serietutako balorazioak ez dira baliozkoak izaten ikusteko gaitasun kognitiboa kaskartzen ari den.

20 ZER ADIERAZTEN DU EDADETU BAT SARRI-SARRI, GEHIEGITAN, LAGUNTZA EDO ARRETA ESKATZEN IBILTZEAK?

- 20a) Dementia daukala.
- 20b) Depresioak eragindako sumina daukala.
- 20c) Berekoia dela eta denak berari begira egoteko gogokoa daukala.
- 20d) Botikekin intoxikatu dela.

21 BALDIN ALZHEIMER GAITZA DAUKAN GAIXOA NORAGABEAN IBILTZEN BADA, ETA BATZUETAN EZ BADAKI NON DAGOEN, EGONEZINIK BADAGO ETA NORAEZEAN, NOLA JOKATU BEHAR DU ERIZAINAK?

- 21a) Nora doan galdetu eta zentzuz joka dezan saiatu.
- 21b) Medikuari esan lasaigarria eman diezaiola.
- 21c) Lotuta edukitzeko neurri arinak hartu.
- 21d) Bere horretan utzi, baina begira egonik.

22 EDADETUEN AZALA AZTERTZEAN AURKITZEA NORMALA DENEZ, EZ DUTE MEDIKUAREN KONTSULTARA JOATEA BEHAR. ZERTAZ ARI GARA?

- 22a) Kolore iluna eta erliebea eduki, eta handitu egiten diren nebusak.
- 22b) Zangoen behealdean, zainak direla-eta, azalean agertzen diren zauri txikiak.
- 22c) Orin (lentigo) senilak.
- 22d) Keratosi aktinikoak.

23 EDADETU BATI JAKIAK, URA, ARROPA ETA ABAR EMATEARI UKO EGITEA EDO HORIEK EZ EMATEA ZER DA?

- 23a) Gehiegikeria emozionala.
- 23b) Utzikeriazko tratu txarra.
- 23c) Utzikeria bai, baina ez tratu txarra.
- 23d) Abandonua bai, baina ez utzikeria.

24 V. HENDERSON-EN EREDUA DELA-ETA, ONDORENGO ESALDI HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

- 24a) Zaintzaren helburua da, funtsean, oinarrizko premiak asetzeko behar duen guztia ematea gaixoari.
- 24b) Indar fisikoa falta izateak autonomia falta dakar ezinbestean.
- 24c) Planifikazioaren etapan, ekintzak aukeratzeko, kontuan hartu behar da gaixo bakoitzak zer arlotan daukan mendekotasuna.
- 24d) Baldin eta gaixoaren dependentsia bada ezagutzarik ez daukala, orduan ez dauka gaitasunik informazioa jaso, prozesatu edo gogoratzeko.

25 ZEIN DA LEVODOPA (L-DOPA) TRATAMENDUA DAUKATEN EDADETUEK GEHIENETAN JASATEN DUTEN ONDORIO TXARRA?

- 25a) Hipertentsioa.
- 25b) Idorreria.
- 25c) Takikardia.
- 25d) Nahasmendu akutua.

26 GAUR EGUN, ZEIN DIRA EDADETUEN GILTZURRUNEKO EZINTASUNAREN (INSUFICIENCIA) ERAGILE NAGUSIAK?

- 26a) Giltzurrunetako eta prostatako minbizia.
- 26b) Mellitus diabetea eta hipertentsio arteriala.
- 26c) Txizako infekzioak eta prostatako patologia.
- 26d) Glomerulonefriti mintzairia (membranoso) eta progresio azkarrekoa.

27 BIHOTZEKO EZINTASUN KONGESTIBOA DAUKAN EDADEKO JENDEARENTZAT, ARIKETA FISIKOA

- 27a) Baztertu beharrekoa da kasu guztietan.
- 27b) Baztertu beharrekoa da baldin eta edadetuak ariketari intolerantzia badio.
- 27c) Egin beharrekoa da beti, baina kasu bakoitzera egokituta.
- 27d) Kasu batzuetan egin beharrekoa da, baldin eta edadetua zutik egoteko gai bada.

28 ZER IKERTZEN DU GERONTOLOGIAK?

- 28a) Biologia eta edadetuen portaera.
- 28b) Zahartze-prozesua, dauzkan forma guztietan.
- 28c) Edadetuen osasun-arazoak.
- 28d) Adinean aurrera egindakoek izaten dituzten arazo funtzionalak eta psikikoak.

29 BOTIKAK HARTZEN ARI DEN EDADETU BATEN ODOLEAN ALBUMINA MAILA JAISTEN BADA, ZER GERTATUKO DA?

- 29a) Xurgapena jaitsiko zaio.
- 29b) Proportzio farmakologiko aktiboa handituko zaio.
- 29c) Metabolismorako arazoak izatea eta botikaren eragina atzeratzea.
- 29d) Eragin farmakologikoa gutxituko zaio.

30 ZEIN DA EDADETUEN ARAZO AFEKTIBO EDO EMOZIONAL OHIKOENA, ETA TRATAMENDUAREN BITARTEZ OSA DAITEKEENA?

- 30a) Dementzia.
- 30b) Alzheimer-en gaitza.
- 30c) Eldarnioa (delirioa).
- 30d) Depresioa.

31 ZEIN DA EDADETUEN BIHOTZ-EZINTASUNAREN ADIERAZPEN NAGUSIA?

- 31a) Odolaren hipoperfusioa.
- 31b) Zefaleak, fluxuarekiko erresistentzia jaitsi dela-eta sortuta.
- 31c) Oliguria, nikturia eta beso-zangoetako hotza.
- 31d) Disneak eta, goratuz gero, eztula; batez ere, egunez.

32 HIPOTIROIDISMOAK JOTAKO EDADETUEI ZER AGER DAKIEKE?

- 32a) Ondoeza, beroarekiko intolerantziagatik.
- 32b) Elikadura nahastea, gutxiegi jateagatik.
- 32c) Elikadura nahastea, gehiegi jateagatik.
- 32d) Aktibitatearekiko intolerantzia, nekeagatik.

33 TIROIDEAREN DISFUNTZIOAK AUKERA EMATEN DIE ERIZAINZAKO LANGILEEI

- 33a) Tratamendu farmakologikoa behar bezala kontrolatzeko.
- 33b) Digestioaren disfuntzioa kontrolatzeko.
- 33c) Gaixoarentzat egokia den plan dietetikoa prestatzeko denen artean.
- 33d) Erantzun denak dira zuzenak.

34 ZEIN DIRA HIPERTROFIA PROSTATATIKOA DAUKAN EDADETUAK AZALTZEN DITUEN SINTOMAK?

- 34a) Maskuria erabat husten du, eta txiza sarriago egiten du.
- 34b) Txiza egiteko bat-bateko gogoia dauka, kontrolatzen zaila, baina txorroaren indarra ez du galtzen.
- 34c) Txorroa jarraia da, ugaria, baina txiza gehiegitan egiten du gauez.
- 34d) Kosta egiten zaio txiza-txorroa hasten, eta txiza egin eta gero tantoak galtzen ditu.

35 TERMINAL DAGOEN EDADETUAREN FAMILIAZ:

- 35a) Zehaztu behar da edadetuaren ordeztar erabakiak nork hartzen dituen.
- 35b) Baloratu behar da senide bakoitza nola moldatuko den eta zer konpromiso daukan edadetuazaintzeko.
- 35c) Bukaera arte zaintzarik falta ez dakiola bermatu behar da.
- 35d) Aurreko guztiak.

36 GERIATRIAN, ZEIN DA HILZORIAN DAUDEN GAIXOEN GEHIEN IZATEN DITUZTEN SINTOMA DIGESTIBOAK?

- 36a) Ahoa lehor, eta idorreria.
- 36b) Disfagia, infekzioa hartzeko arriskua eta goragalea.
- 36c) Ahoko kandidiasia, goragalea, gonbitoak eta distentsio gastrikoa.
- 36d) Mina, goragalea eta gonbitoak.

37 GERIATRIAN GERTATZEN DIREN ERORIKOEN KAUSEN ARTEAN, ZEIN DA OHIKOENA?

- 37a) Hiperaktibitatea, hipertentsioa eta depresioa.
- 37b) Hipokaltzemia, dementziak, ibileraren arazoak eta hipogluzemia.
- 37c) Hipertentsioa, inkontinentzia eta hipoakusia.
- 37d) Argi nahiko ez egotea, dementziak eta hipoakusia.

38 EDADETUETAN, ZEIN DIRA NAHASMENDU AKUTUA ADIERAZTEN DUTEN ZEINUAK?

- 38a) Sintetizatzeko zailtasuna.
- 38b) Denborazko desorientazioa, baina ez espaziokoa.
- 38c) Burmuineko funtzioen perturbazio fokala edo globala.
- 38d) Kontzientzia erabat edo ia galtzea, pertzepzio motelak edukitzea, desorientazioa eta identifikatzen zailtasuna edukitzea.

39 ZEIN DIRA NAHASMENDU AKUTUAREN BEREIZGARRI DIREN KAUSAK?

- 39a) Deskonpentsazio diabetikoa eta txizaren infekzioa.
- 39b) Dementia eta zahartzea.
- 39c) Zahartze-prozesua eta bakardadea.
- 39d) Isolamendua eta bakardadea.

40 ZERTAN ERAGIN DEZAKE INKONTINENTZIAK?

- 40a) Loaren premian.
- 40b) Erortzeko arriskuan.
- 40c) Sexu-harremanetan.
- 40d) Aurreko guztietan.

41 PNEUMONIA BUXATZAILE (OBSTRUCTIVO) KRONIKOA DAUKATEN EDADETUEN KASUAN, ZEIN DIRA ERIZAINEK KONTUAN HARTU BEHARREKO GORABEHERAK NABARMENTZEN DITUZTEN BEREIZGARRIAK?

- 41a) Anhidriko karbonikoa gutxitu eta anhidriko fosforikoa handitzea.
- 41b) Arnasketa-funtzioa erabat asaldatzea.
- 41c) Eztula, eta espektrazio etengabea eta lodia edukitzea.
- 41d) Arnasbideen kalibrea handitzea glandulak hanpatu direla-eta.

42 ENFISEMA NAGUSITZEN ZAION BIRIKETAKO GAIXOTASUN BUXATZAILE KRONIKOAREN BEREIZGARRIA ZEIN DA?

- 42a) Hiperkapnia.
- 42b) Karkaxa ugaria.
- 42c) Estertoreak.
- 42d) Hipoxemia arina edo txikia.

43 EDADETU BATEK DEPRESIO-ARAZO HANDIA DAUKALA JOKO DUGU, UMORE DEPRESIBOAREKIN BATERA, HAU ERE AGERTZEN BADU:

- 43a) Betiko gauzak egiteko interes falta, lo egin ezina, apetituaren arazoak, nekea eta errudun sentipena.
- 43b) Automedikazioa, antsietatea eta oldarkeria.
- 43c) Nekea eta memoria galtzea.
- 43d) Nekea, hiperaktibitatea eta gaixotasun fisikoa.

44 GERIATRIAN, ISTRIPU BASKULAR ZEREBRALARI BURUZKO ESALDI HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

- 44a) Norbera adierazteko zailtasuna, orientazio eza eta ahozko komunikazioa nahiz afektibitatea aldatzea ditu bereizgarri.
- 44b) Ez dauka bilakaera paraleloa kaltetutako arlo guztietan.
- 44c) Sorburu organikoa daukan sindromea da, eta funtzio intelektualak apurka-apurka eskatea du bereizgarri nagusia.
- 44d) Burmuinaren funtzioen perturbazio fokala edo globala adierazten duen sintoma multzoa da, odol-fluxu gutxiegi izatearen ondoriozkoa.

45 ZEIN DA APRAXIAREN BEREIZGARRI NAGUSIA?

- 45a) Ahozko komunikazioa erabat galtzea.
- 45b) Adierazpena eta ulermena galtzea.
- 45c) Mugimendu koordinatuak egiteko gaitasuna erabat galtzea.
- 45d) Pertsonak eta objektuak ezagutzeko gaitasun eza.

46 ZEIN DA PARKINSON GAITZAREN LAUGARREN ETAPAREN EZAUGARRIA?

- 46a) Erabateko mendekotasuna.
- 46b) Zurruntasuna eta ezintasun intentsua.
- 46c) Dardara beso-zangoetan.
- 46d) Beso-zangoen erasapen (afektazio) bilaterala.

47 GERNU- ETA UGALTZE-APARATUA ZAHARTZEAREN ONDORIO AIPAGARRIENA ZEIN DA?

- 47a) Maskuria etengabe hustu beharra.
- 47b) Nefrona kopurua gutxitzea, tubuluak dilatatzea eta ehun interstizialak ugaritzea.
- 47c) Filtrazio glomerularren abiadura gutxitzea eta txiza-hondakin gutxiago sortzea.
- 47d) Horiek guztiak zuzenak dira.

48 EDADETUAREN SISTEMA DIGESTIBOAREN ALDAKETEI BURUZ, GARRANTZITSUA DA AIPATZEA:

- 48a) Muki gastrikoen atrofia.
- 48b) Hesteen funtzionamenduari bere horretan eusten zaiola, abdomeneko paretaren tonua galdua ere.
- 48c) Listu-jariaketa handitu, eta hortzetako esmaltea kaltetzen dela.
- 48d) Digestio-sisteman ez dela agertzen zahartzearen ondoriozko aldaketarik.

49 ZEIN DA EDADETUEN ARTEAN BALBULOPATIA OHIKOENA?

- 49a) Estenosi aortikoa.
- 49b) Estenosi mitrala.
- 49c) Ezintasun mitrala.
- 49d) Biriken ezintasuna.

50 JOKABIDE EZBERDINA IZATEN DUTE NAHASMENDU-KOADROA DAUKAN EDADETU BATEK ETA DEMENTZIA DAUKAN EDADETU BATEK. HONAKO EZBERDINTASUN HAUETATIK BAT BEREZIKI AIPAGARRIA DA, ZEIN?

- 50a) Nahasmendu-koadro akutuaren forma hipoaktiboaren ezaugarria da lokuma eta nekea izatea.
- 50b) Kontzentratu ezina soilik dementzia-koadroetan agertzen da.
- 50c) Dementzia daukan edadetuari burua argitu dakioke tarteka, nahasmendu akutua daukanari, ez.
- 50d) Nahasmendu akutua izanez gero, gerta daiteke beldurra eta oldarkortasunezko erreakzioa agertzea, alabaina dementzia izanez gero, inoiz edo behin besterik ez.

ORDEZKO GALDERAK

51 HONAKO AUKERA HAUETATIK, ZEIN DA EDADETUEI LAGUNTZEKO EGITEN DEN PREBENTZIO TERTZIARIOAREN ADIBIDE?

- 51a) Gripeareen kontrako txertoa ematea.
- 51b) Eroriko baten ondoren, ibiltzen irakastea berriz.
- 51c) Zentzumenen organoen arazok bahetzea.
- 51d) A eta C dira erantzunak zuzenak.

52 HAUXE GALDETU DIGU GAIXO TERMINAL BATEK: “HILTZEN ARI NAIZ?” ESAN HAUETATIK ZEIN DEN ERIZAINAK EMAN BEHARREKO ERANTZUN ZUZENA:

- 52a) “Zerk kezkatzen zaitu? Esadazu niri”.
- 52b) “Ez kezkatu, medikuak esango dizu zer daukazun”.
- 52c) “Badakit, bai, zer sentitzen duzun”.
- 52d) “Ez ezazu horretaz pentsatu, zuri laguntzeko gaude gu”.

53 ESPAINIAKO ERIZAINAZ:

- 53a) Espainiako Erizaintzako Kode propioa onartu arte, Erizaintzako Nazioarteko Kontseiluaren Kodea izan zen erizaintza-laneko arazo etikoak konpontzeko erreferentzia.
- 53b) 1979ko uztailaren 14ko 32/79 ebazpenaren bidez onartu zen.
- 53c) Erizainak profesionalki tratatzen dituen pertsonen ongizatean inspiratutako etikan oinarritzen da Kode Deontologikoa.
- 53d) A eta C dira erantzunak zuzenak.

54 EDADETU ERKINETAN (FRÁGIL), ZEIN DIRA GAIXOTASUNAREN ZANTZU BEREIZGARRIAK?

- 54a) Sintoma ez-ohikoak eta ez oso zehatzak.
- 54b) Ez da agertzen espero izatekoa den erlazioa gaixoaren klinikoaren eta gaixotutako organoaren artean.
- 54c) Organo erkinenak amore ematen du.
- 54d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

55 ISTRIPU BASKULAR ZEREBRALEKO PROZESUETAN SARRITAN AGERTZEN DIREN ERIZAINZAKO DIAGNOSTIKOEN ARTEAN, ZEIN DA OHIKOENA GERIATRIAN?

- 55a) Mugikortasuna murriztea.
- 55b) Kaltetutako gorputz-atalaren erantzun-ez (desatención) unilaterala.
- 55c) Ahozko komunikazioa aldatzea.
- 55d) Horiek guztiak.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA